



EBAZPENA, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan onartutako eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda onartzen duena (hautaketa-prozedurak 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitu ziren)

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez (2025eko martxoaren 6ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak iragarri ziren.

Eskabideak betetzeko epea amaitu ondoren, aipatutako deialdiak 4. oinarrian xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan onartutako eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda (hautaketa-prozedurak 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitu ziren).

Bigarrena.– Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-langileak/> («EPE 2025. Bigarren Hezkuntza») – «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

Hirugarrena.– Onartutako izangaiei zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztenik. Beraz, onartutako pertsonen prozedura honetan parte hartzetik eratorritako eskubideak izateko, 11. oinarrian jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta, ondorioz, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta azterketa medikoa gainditu beharko da.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendari dagokionez, izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango da baztertzea eragin duen akatsa. Halaber, beren datu pertsonalak jasotzean akatsak atzeman dituztenek epe horretan bertan adierazi ahal izango dute.

Erreklamazioak Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta interneteko helbide hauetan aurkeztuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda», «Erreklamazioak» eta horiek aurkezteko jarraibideak betetzea.
- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> («EPE 2025. Bigarren Hezkuntza») – «Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda», aurreko ataleko bideari





jarraituz.

Interesdunak ez badu adierazitako epean zuzentzen baztertzeko arrazoia izan den akatsa, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN